ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena • 6 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

531/2018 Foru Agindua, abenduaren 28koa, baimentzen duena Blanca López Montañaren izendapena Zambranako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behinean betetzeko

Aldundi honetan azaroaren 26an aurkeztutako idazki baten bidez, Zambranako Udalak eskatu zuen Blanca López Montaña aldi baterako izendatzea idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, lanpostu horren titularrak erretiroa hartuko duelako.

Horren harira, adierazi behar da udal horrek iragarkia argitaratu zuela ALHAOn 2018ko azaroaren 14an (131. zk.), gaikuntza nazionaleko funtzionarioek behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaten, baina udal horrek baieztatu du ez dela eskaerarik aurkeztu.

Aldi berean, Zambranako Udalak egiaztatu du harremanetan jarri dela inguruko udaletako idazkariekin, egiaztatzearren ba ote zuen haietakoren batek lanpostua betetzerik aldi baterako lan metaketa edo zerbitzu eginkizun bidez; eta ezinezkoa izan da bata zein bestea.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 53.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ezinezkoa denean gordetako lanpostuak gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, toki korporazioek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, zeinak A1 azpitaldera sartzeko eskatutako titulua eduki beharko baitu. Alde horretatik, espedientean egiaztatzen denez, Zambranako Udala saiatu da lanpostu hori betetzeko titulazioa daukan bitarteko funtzionario bat izendatzen, baina ezinezkoa izan da, udalak ez baitauka lan poltsarik izendapen hori egiteko.

Era berean, eta 128/2018 Errege Dekretuak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinezkoa bada lanpostua betetzea lehen aipatutako prozedura horien bitartez (behin-behineko izendapena, aldi baterako lan metaketa eta zerbitzu eginkizunak), autonomia erkidegoei eskatu ahal die behin-behinean izendatzea beren funtzionario bat, prestakuntza tekniko egokia duena, eta, ahal izanez gero, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate tituluduna. Nolanahi ere, 5.000 biztanletik gorako korporazioetan, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak egingo du izendapena, eta espedientean egiaztatuta geratu beharko da ezinezkoa izan dela lanpostua gaikuntza nazionaleko funtzionario batek betetzea.

Adierazi behar da ezen, gaur egun, foru aldundi honek ezin duela behin-behinean izendatu lanpostu horretarako estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionariorik, ez baitauka daturik gaikuntza hori izanik izendatua izateko interesa duen inori buruz, eta, halaber, ez duela emaitzarik eman udal horrek egindako deialdi publikoak ere, lehen esan dugunez.

Era berean, goraxeago adierazitako moduan egiaztatu da ez dela aldi baterako lan metaketa edo zerbitzu eginkizun bidez betetzerik izan.

Horiek horrela, egoki jotzen da Zambranako Udalak egin duen izendapen proposamena onartzea.

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek,

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

92.bis artikulu berria sartuta— non finkatzen den toki korporazioetan halabeharrezko langileak izendatzeko eskumen eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Blanca López Montaña izendatzea Zanbranako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako bete dezan, 2018ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen horrek estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioren bati lanpostu hori esleitu arte izango ditu ondorioak. Dena den, edozein unetan indargabetu ahal izango da bai Zambranako Udalak hala eskatu duelako bai hura kargutik kentzeko legezko arrazoiren bat dagoelako.

Hirugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Zambranako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea argitara dadila ALHAOn.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 28a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.01.14 07:02:53 Z